

GENERO-BERDINTASUNAREN II. EKINTZA-PLANA

Laburpena

2019-2022 SETEM HEGO HAIZEA

1. SARRERA

SETEM Hego Haizean aspaldi ari gara lanean izan nahi dugun erakundea bihurtzeko, hain zuzen ere, erakunde feminista izateko. Hori agerian uzten du Genero Berdintasunaren aldeko II. Ekintza Planak (aurrerantzean, II. GBEP). Horretan murgilduta gaude 2019ko abendutik, eta 2022 abendura bitartera iraungo du (36 hil).

Hauxe sinesten dugu: eraldaketa soziala eta ekonomikoa lortzeko, bizitza muinean jartzen duen mundu bidezkoagoa eta jasangarriagoa lortzeko, gure erakundeak aztertu eta berreraiki behar ditugu, aurre egin nahi diogun sistema heteropatriarkal berdina berregiten ez dutela ziurtatzeko.

Horrekin lotuta, II. GBEP sortu dugu unera arte egin ditugun jarduketa ugariak finkatzeko. Gainera, aurreko planean hasitako gogoetak jasotzen ditu. Horien artean, plan berri honetarako giltza bat nabarmentzen da: erakunde ez heteropatriarkal eta feminista batez zer ulertzen dugun zehazteko definizio erkidea.

Planean jaso dugunez, erakunde feminista bat zer izan behar den ez da kontzeptu itxia guretzat. Hala ere, hiru printzipio nagusi nabarmendu ditugu, gure erakundea eraldatzeko prozesuan iparrorratza izango direnak:

- 1) **Sistema heteropatriarkala ez berregitea.** Gure erakundean antzeman ditugun emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desegin nahi ditugu.
- 2) **Geure burua ahalduntzea.** Nork bere burua ahalduntzea suspertu nahi dugu, hau da, desberdintasunen kontzientzia hartzea (banaka zein taldeka), horiek ulertzeko eta desegiteko.
- 3) **Generoa txertatzea.** Gure ekintza denetan genero-ikuspegia txertatu nahi dugu.
- 4) **Erakunde-kultura feminista.** Erakunde-kultura eraldatu nahi dugu, natural bihurtu diren desberdintasunak iraunarazten ez dituen funtzionamendua lortzeko.
- 5) **Feminismoak interseksionalitatetik.** Ikuspegi feminista interseksionala sustatu nahi dugu.

Genero Berdintasunaren aldeko II. Ekintza Planak ez du estrategia espezifikorik jasotzen; aitzitik, hamar bide ezartzen ditu, izan nahi dugun erakundea bihurtzeko kontuan hartu behar ditugunak.

Bide bakoitzean zenbait ekintza egingo ditugu, plana garatzeko. Horien bidez, ikuspegi feminista kritiko eta eraldatzailea txertatu nahi dugu, ez soilik gure hizketan, baizik eta SETEM Hego Haizearen estrategia eta erakunde-gai guztietan.

Erakunde feminista bihurtzeko konpromiso politikoa sendotu nahi dugu; esaten dugunaren (hizketa) eta egiten dugunaren (berdintasunaren aldeko jardute feminista erakundearen barruan eta hartatik at) arteko koherentzia bilatu nahi dugu.

2. BIDEAK

<i>Zer egiten dugun, gure nortasuna, gure marko politikoa: 1. eta 2. bideak.</i>	1.BIDEA. Etengabe eraikitzen ari gara gure nortasuna, zenbait feminismoren proposamenekin eta sekzioarteko ikuspegia txertatuz. 2. BIDEA. Kapitalismoaren edo kontsumismoaren eta heteropatriarkatuaren arteko loturen ulermenean sakontzen jarraitzen dugu, bai eta kontsumo kritikoko, arduratsuko eta eraldatzaileko ordeko aukera feministen eraikuntzan ere.
<i>Norekin eta noren artean egiten dugun, gure aliantzak eta zer espaziotan gauden: 3., 4. eta 5. Bideak.</i>	3. BIDEA. Iparraldeko eta hegoaldeko mugimendu feminista globalekin egin dugun aliantza sendotzen dugu. 4. BIDEA. Gure apustu feminista hedatzera ematen dugu parte hartzen dugun sareetan. 5. BIDEA. Erakunde feminista eraikitzeko bidea egiten ari gara bide berdinari ekin dioten beste kolektibo batzuen laguntzaz eta inspirazioarekin.
<i>Nola egiten dugun, gure funtzionamendu-moduak eta barne-dinamikak: 6., 7., 8. eta 9. bideak.</i>	6. BIDEA. Baliabideak ematen dituen erakundea da SETEM, pertsonok geure burua kudea dezagun modu ez heteropatriarkalean eta erakuntzunkidean. 7. BIDEA. Gure erakundean agente-espazioak antzeman, murriztu eta legitimotzat hartzen dira, harreman horizontalen markoan. 8. BIDEA. SETEMen baliabideak ematen dira emozioak eta zaintza bateratzeko, denok batera ondo bizitze aldera. 9. BIDEA. Gatazkak indarkeriarik gabe eta modu

	eraldatzailean antzematen, adierazten eta kudeatzen dituen erakundea gara.
<i>Nola kontatzen dugun, nola komunikatzen dugun: 10. bidea.</i>	10. BIDEA. Komunikazio-eredu feminista dugu.

2.1. BIDEEN DESKRIBAPENA

1. BIDEA. Etengabe eraikitzen ari gara gure nortasuna, zenbait feminismoen proposamenekin eta ikuspegi interseksionala txertatuz.

Geure buruari erakunde feminista deitzea lortu dugu, baina gure ikuspegia hedatzen eta ideia hori edukiz betetzen jarraitu nahi dugu. Feminismoak bizirik daude beste proposamen eta agenda batzuekin lotuta, hala nola ekologistarekin, beherapenarekin, elikadura-subiranotasunarekin, sexu- eta kultura-aniztasunarekin, arrazakeriaren aurkakotasunarekin, eta abarrekin. Gure jarrera elikatu nahi dugu analisi, kritika eta proposamen feministekin, jarrera politiko ezberdinetatik sortzen direnekin. Uste dugunez, horrek aukera emango digu gure muinean interseksionalitatea gehitzeko eta gure inguruko botere-harreman konplexuak ulertzeko. Horrez gain, gogoeta hori lagungarria izango da gure jarrera feminista sendotzeko.

2. BIDEA. Kapitalismoaren edo kontsumismoaren eta heteropatriarkatuaren arteko loturen ulermenean sakontzen jarraitzen dugu, bai eta kontsumo kritikoko, arduratsuko eta eraldatzaileko ordezkari aukera feministen eraikuntzan ere.

SETEMen lanaren arlo nagusia osatzen dute sistema kapitalista eta kontsumista modu kritikoan aztertzeak eta ordezkari aukera kritiko, arduratsu eta eraldatzaile bat sortzeak. Horretarako, lehentasuna ematen diegu beste kontsumo-eredu batzuei. Uste dugunez, proposamen hori ez da guztiz eraldatzailea izango analisi eta proposamen feministez blai ez badago. Horretarako, uste dugu ezinbestekoa dela sistema kapitalistaren eta heteropatriarkalaren aliantzan sakontzen jarraitzea eta hura kontsumo-esparru ezberdinetan nola islatzen den agerian jartzea. Horrez gain, eredu horren ordezkari ereduak definitu nahi ditugu, feminismoak ardatz izanik pentsatu ditugunak.

3. BIDEA. Iparraldeko eta hegoaldeko mugimendu feminista globalekin egin dugun aliantza sendotzen dugu.

Argi dugu mugimendu feminista sistema hori eraldatzeko funtsezko subjektua dela nazioarteko mailan. Hori aitortuz, aliantza sendoa eraiki behar dela uste dugu. Gainera, ez dugu nahi gure apustu feminista hizketa baten gaia baino ez izatea; aitzitik, kalean dagoenaz eta eguneroko auziez busti nahi dugu geure burua, eta horiei ekin nahi diegu. Eta, horretarako, toki ezberdinetako erakunde feministekin harremanak sortzen jarraitzea proposatu diogu geure buruari, ikasten jarraitzeko eta beren ibilbide politikoak nahiz ekintzailtza sozialekoak eredu hartzeko. Aliantza horrek esan nahi du gure agendan sartuko ditugula agenda feministako gaiak, erakundearen lan-arloarekin bat egiten dutenak; bai eta parte-hartze aktiboa izango dugula ere, gure lan-ardatzak tartean gauden espazio feministetan barneratu daitezten.

4. BIDEA. Gure apustu feminista hedatzera ematen dugu parte hartzen dugun sareetan.

SETEMek, bere historian zehar, indartsu egin du sarean lan egitearen alde. Gaur egun, hainbat sareren parte gara, zeinak kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzailearen eta ekonomia sozialaren eta solidarioaren inguruan lan egiten duten. Aurrez adierazi dugunez, ikuspegi feministak arlo horiek zeharkatzea nahi dugu. Horretarako, geure buruari proposatu diogu parte hartzen dugun sareak erabiltzea eragin feminista izateko eta espazio horien bidez egingo ditugun jardunbideak eta ordezkio aukerak feministak izateren garrantzia eta beharra aditzera emateko, logika heteropatriarkalak ez berregiteko eta denontzako eraldatzaileak izateko.

5. BIDEA. Erakunde feminista eraikitzeko bidea egiten ari gara bide berdinari ekin dioten beste kolektibo batzuen laguntzaz eta inspirazioarekin.

Badakigu erakunde ez heteropatriarkalak eta feministak sortzeko ez dagoela bide aproposik, baina ibilbide berdinean dauden beste batzuegandik ikasteko aukera badago ordea. Feminismoa gure erakundeko bazter denetara ekartzearen aldeko apustuarekin batera posizioen jardunak, egiturak eta kultura zalantzan jarri beharko ditugu etengabe. Oso bortitza da, eta, batzuetan, zaila egiten da erreferentziarik eta eskarmenturik ez izateagatik. Ondorioz, nahasita sentitzen gara. Horregatik, gure ibilbidea beste batzuen laguntzarekin egin nahi dugu, bata bestearen inspirazioa izateko, bakoitzak arakutzen duena partekatzeko eta bizitzen ditugun esperientziak denon hazkuntzarako tantak izan daitezten.

6. BIDEA. Baliabideak ematen dituen erakundea da SETEM, pertsonok geure burua kudea dezagun modu ez heteropatriarkalean eta erakuntzunkidean.

Geure burua antolatzeko eta kudeatzeko, gure jardunbideak, lanak eta erantzukizunak banatzeko moduak eta abar zeharkatzen dituzte dinamika heteropatriarkalek eta

produktibistek, gu kontziente izanik edo ez izanik. Sarritan, eraldatu nahi ditugun eredu zaharkituen gainean jardun eta eraikitzen dugu. Talde lan ez heteropatriarkala SETEMen bereizgarria izatea lortu nahi dugu, eta horren arabera aritu eta jardun nahi dugu geure erakundean. Horretarako, koerantzunkidetasunez jokatu behar dugu, eta, funtzioak, zereginak, erantzukizunak eta abar zehaztuz eta balioztatuz, abiapuntua ezarri behar dugu lehenik. Horretarako, alde produktiboa eta erreproduktiboa nahiz indibiduala eta kolektiboa hartu behar ditugu aintzat.

Hori barne hartzen duen sistema bat zehazteko, gure ezagutzak, gaitasunak, trebetasunak eta baliabideak sendotu behar ditugu, ahalduntze pertsonalari eta kolektiboari lagun diezaieten, talde lan kooperatiboagoaz eta solidarioagoaz osatutako kultura eragiteko, gure ekintzetan eta horiek gauzatzeko moduan islatuko dena.

7. BIDEA. Gure erakundean aginte-espazioak antzeman, murriztu eta legitimotzat hartzen dira, harreman horizontalen markoan.

Bide hori honako arrazoi hauek eragin dute. Lehenik, erakundean boterearen eta botereen gaiari heltzearen beharra berresteak. Gai hori ezin izan da asko sakondu, eta, uste dugunez, horrekin lotuta hausnarketa egiteko aukerak bermatzeko garaia iritsi da. Bigarrenik, gure aburuz, parte hartzeko eta erabakiak hartzeko sistema aztertu behar dugu, alegia, SETEM hornitu duen egitura. Zer botere dauden hobetu ulertu nahi dugu, erakundeak erabakiak hartuko dituen esparruak legitimo egin nahi ditugu, horren guztiaren inguruan eztabaidatu nahi dugu eta hori guztia geure egin nahi dugu, erakundean bidezko eta kalitatezko parte-hartzea sustatzeko behar den bidea delako.

Azkenik, SETEMen partaideen arteko harremanak landu behar direla uste dugu ere bai, SETEMen parte-hartzea ahalduntzailea izan dadin, harreman horizontalak oinarri hartuta, baina pribilegioen eta zapalketen analisia alde batera utzi gabe.

8. BIDEA. SETEMen baliabideak ematen dira emozioak eta zaintza bateratzeko, denok batera ondo bizitze aldera.

Proiektu politikoa garatzeko taldea zaintzea ezinbestekoa dela badakigu. Taldearen giroa zaintzea taldea osatzen duten pertsonak zaintzea da. Taldearen giroa pizteko hura sendotu eta finkatu behar da, eta, horretarako, behar indibidualei zein kolektiboari heldu behar zaie. Horrela, erakundearen kulturaren eta talde lan ez heteropatriarkalaren parte gisa ezarriko da. Geure burua (persona gisa) eta erakundearena erabat ulertzeko aukera ematen diguten espazioak, uneak eta tresnak sartu behar ditugu gure eguneroko zereginean eta gure balio-sisteman, denok benetan aukera izan dezagun kolektiboki zintzotasunez bizitzeko. Horregatik, baliabideak izan behar ditugu taldearen giroa pizteko eta hura zaintzeko, bata besteari ondo ezagutzeko eta bata bestearengan konfiantza izateko. Horrela, ez ditugu besteak epaituko eta inplikazio handiagoa izango dugu erronka kolektiboari sormenez ekiteko.

9. BIDEA. Gatazkak indarkeriarik gabe eta modu eraldatzailean antzematen, adierazten eta kudeatzen ditu gure erakundeak.

SETEMen, alde batetik, gizatalde eta erakunde guztietan gatazkak daudela ikusarazi eta aitortu nahi dugu; eta, bestetik, horiek aukera bat dakartela ulertu nahi dugu, ez, ordea, mehatxu bat. Uste dugunez, gatazkek aukera eman ahal digute salatzen ari garen errealitatea eraldatzeko, eta, halaber, gure erakundeetako eta harreman pertsonaletako errealitateak aldatzeko, lankidetzak handiagokoak, solidarioagoak eta bidezkoagoak diren eredu-erantz, non aniztasuna eta bizitza zaintzea gure jardunen eta harremanen erdian jartzen diren. Horretarako, baliabideak, gaitasunak eta tresnak jaso behar ditugu, gatazkak identifikatu eta azaldu ahal izateko eta horiek indarkeriarik gabe aztertzeko, negoziatzeko eta eraldatzeko.

Azken urteetan bide interesgarri bati ekin diogu eta protokolo bat dugu gatazkak arautzeko eta taldea zaintzeko. Hari esker, aurrerapen handia egin genuen gai horren inguruan landutakoa sistematizatzeari zegokionez. Geure burua prestatu nahi dugu eta gure gaitasunak hobetu nahi ditugu, gatazkak 7 urratseko negoziazioaren metodologiaren bidez eskatzen duen guztirako. Egitura eta prozedura argiak eta zehaztuak izan nahi ditugu suertatuz doazen gatazkei heltzeko, bat-bateko erantzunak eman behar ez izateko. Horrek zehaztasun, egitura, baliabide eta abar handiagoak behar ditu, eta ikuspegi feministaren aplikazio argiagoa eta irmoagoa ere bai. Gainera, esplizituak diren indarkeria matxisten aldeari heldu nahi diogu, erakundeak jarduketa-protokolo argia eta zehatza izan dezan horrekin lotuta.

10. BIDEA. Komunikazio-eredu feminista dugu.

SETEM HH-n uste dugunez, komunikazioa da egiten dugunaren elementu nagusia. Ez da tresna bat soilik, lan-ikuspegi gisa ulertzen dugu. Gure aburuz, gainera, gure gaur egungo komunikazio-eredua hobetu daiteke gure ikuspegi feministaren arabera, erakundeetan barrena zein kanpora begira. Horregatik, komunikazioa gure bide propioetik ikusarazi nahi izan dugu, ezarritako beste bederatzi bideak zeharkatzen dituen ardatz gisa ulertu behar dela uste badugu ere. Erakundearentzako garrantzitsuak diren tresnetan ikuspegi feminista txertatu behar dela uste dugu, adibidez, komunikazio-planetan. Barne-komunikazioari ikuspegi feministarekin ekin behar diogu, ezagutzak/jakintzak kudeatzeko bide gisa, eta prozesu horretaz jabetu behar gara. Horrez gain, ditugun tresna eta ezagutza denak sendotu behar ditugu komunikazio feminista finkatzeko.

Azkenik, kanpo-komunikazioa lantzea garrantzitsutzat jotzen dugu: zer komunikatzen dugun aztertu, nork komunikatzen duen, zer formatu eta espaziotan... Eta gai horiek eraldatu behar ditugu gure nortasun feministari lagundu diezaion.